

# getxoBerri

## / Nabarmentzekoak

- > Jarduerak LGTBIQ+ Harrotasunaren Egunerako (2. or.)
- > @GetxoUdala Tik Token dago jada (2. or.)
- > Getxoko Dantzaren Astea, asteburu honetan (3. or.)



\*Romo FC, Euskadiko txapelduna alebin futboleko Eskolarteko Jokoetan (4. or.)

**VII. Getxo Kantari Eguna.** Hilak 14, larunbata, 12:00etan, San Nikolasetik abiatuta, kantu jira Algortan. 15:30ean herri bazkaria San Nikolaseko frontoian.

**A-  
GENDA**

**Antzinako musikaren kontzertu antzetzua.** Hilak 21, larunbata, 12:00etan, Muxikebarrin, "El jardín de las delicias", All'Antica Musika-rekin. 6€.

## Fadurako kanpoko igerilekuak irekiko dira ostiral honetan, hilak 13

Getxo Kirolakek Fadurako kanpoko igerilekuak irekiko ditu ostiral honetan, ekainak 13. Udako denboraldia irailaren 15era arte luzatuko da eta igerileku olinpikoa 7:30etik 21:30ak arte egongo da zabalik. Haurrentzako igerilekuak eta berdegune/solarium gunea, berriz, 10:30etik aurrera erabili ahal izango dira (kafetegi-zerbitzua 11:00etatik 20:30era egongo da zabalik, or-dubete lehenago asteburuetan).

Fadurako barruko igerilekuak, astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era egongo dira zabalik (asteburu eta jaiegunetan 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era). Irailaren 1etik 14ra arte itxita egongo dira, urteko mantentze-lanak egiteko.

Jendearentzako arretari dagokionez, gogoratu behar da bulegoak goizeko ordutegian baino ez direla zabalduko (8:15etik 14:15era), ekainaren 16tik irailaren 12ra arte.

### Beste ordutegi batzuk

Gobela kiroldegia uda osoan egongo da zabalik. Dena den, igerilekuak itxita egongo dira abuztuaren 18tik 31ra (biak barne), urteko mantentze-lanak egiteko.

Andra Mariko kiroldegiari dagokionez, ekainaren 13tik irailaren 15era, ordutegia honako hau izango da: 8:30-13:45h eta 17:30-21:30h.



## Getxobus ibiltari batek udalerria zeharkatzen du, herritarrek hiri-bus bati emango lioketen erabilera ezagutzeko

Getxoko herritarrek udalerriko zerbitzuekin eta beste garraio publiko batzuekin konektatuko dituen hiri autobus bati zer erabilera emango lioketen jakiteko, Udalak entzuteko prozesu bat jarri du abian.

Helburua da hiri autobusaren proba pilotua errealitatearekin ahalik eta leialen izan dadila eta behar jakin batzuei erantzunez jaio dadila, herritarrek beren ohiko mugikortasunean autobus hori bere egin dezaten. Proiektua, udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPK 2025eko Aurrekontua onartzea

errazteko sinatutako akordio politikoaren emaitza da. Entzuteko moduetako bat Getxobus ibiltari baten

bidez egiten da, eta horrek herritarrek sarritan joaten diren udalerriko hainbat leku zeharkatzen ditu.

### ENTZUTE MOTAK: EKAINAREN 22RA ARTE

1) Kalean, Getxobus bat eta markesina bat ibiltariak jarri.


Tokia	Egunak	Orduetgia
Benta espazioaren ondoan	12	11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:30 h
Algortako Geltokia plaza	13, 14 eta 15 (*)	(*) Igandean goizez bakarrik
Gernika parkea	16	
Neguriko geltokia plaza	17	
Zubileta parkea	18	11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:30 h
Aldapa parkea	19	(*) Igandean goizez bakarrik
Areetako Geltokia plaza	20, 21 eta 22 (*)	

- 2) Enpresa espezializatu batek telefonoz egindako inkestaren bidez.  
3) Online, ZEUGAZ plataformaren bidez (<https://zeugaz.getxo.eus>).

## Bizkaia Zubiko ontzitxoaren karga mugatu da

Bizkaia Zubiak jakinarazi du udan tenperatura handia izango dela aurreikusitakoenez eta zubiko ontzitzoko kableen egungo egoera ikusita, -horiek guztiak indartu egin dira-, ontzitxoaren karga bidaia bakoitzeko gehienez lau gurgpileko lau ibilgailura murriztu dela; eta oinezko eta bizikleta gehiegi joanez gero 2 ibilgailura murriztu daitekeela, haiei ontziratzeko lehentasuna emango baitzaie.

Ontzitxoari eusten dioten kableetako bat hautsi zela eta, Bizkaia Zubiak azterketa tekniko zorrotza egin zuen eta egungo egoera azter-



tu zuen, birgaitze bat egitea komeni zela zehazteko. Kableen sisteman berehalako akatsik antzeman ez bada ere, tenperatura altuak izateko aukera kontuan hartuta eta, horren ondorioz, kargatik atrakatzeko zaila dela eta, enpresak ontzitxoaren karga murriztea ebatzi du. Neurri horiek aldi baterakoak izango dira uda igaro arte, eta urrian ontzitxoaren kableak aldatzen direnean ere.



## EKAINAK 13 OSTIRALA

**Bilbao Bizkaia Harro.** San Nikolas plazan, 18:30ean, pregoia. Ondoren Txikigune HARROKids, Lova Lois, Sin trampa ni autotune, Nawi eta, 21:30ean, DJ-a. <https://bilbaobizkaipride.com/>

**Getxotar Dantza Astea.** 19:00etan, Muxikebarrin, "Havana Dance". 3€.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Zorretan" (euskaraz), Hika Teatroarekin. 12€.

**Getxophoto. Gaueko bisita.** Gaztelaniaz. 21:30ean, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 14 LARUNBATA

**Berantzagi Dantza Taldearen 60. urteurrena.** 11:00etatik aurrera, erromeria, artisau erakusketa eta haurrentzako tailerrak. 12:00etan, hasiera, aurrekua eta kalejira Bizkaia Zubitik erraldoi eta buruhandiek. 15:00etan herri bazkaria eta 19:00etan Dantza Plaza Eskoletako plazan eta Zuzterrak taldearen emanaldia.

**Dantza plaza. Denboraldiaren amaiera.** 19:00etan, Areetako Eskoletako plazan, erromeria udalerriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**VII. Getxo Kantari Eguna.** 12:00etatik aurrera, San Nikola-setik abiatuta, kantu jira Algortan. 15:30ean herri bazkaria San Nikolaseko frontoian. [www.itxas-argia.com](http://www.itxas-argia.com)

**Getxotar Dantza Astea.** Muxikebarrin, 11:00etan, Allegro Ballet Studio; 16:30ean, Estudio de Danza Porté eta 19:00etan, Dantzarte. 3€.

**Getxo Eszena Kalean. Dantza.** 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Haurreskolari", Tio Seronen semeak konpainiarekin. Sarrera doan.

**Getxophoto. Larunbatak erdigunetik.** Gaztelaniaz. 11:30ean, irteera InfoGuneetik-Algortako azoka. 5€. Hamaiketako. 11:30ean, Getxophotoren bulegoan (Amezti 6, 5. 5.), María Azkarate (arkitektoa eta argazkilaria). 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 15 IGANDEA

**Getxotar Dantza Astea.** Muxikebarrin, 11:00etan, Estudio de Ballet Carmen Vera; 12:30ean, Vivó la Danse Studio; 16:30ean, Utopian eta 18:30ean, Ana Lara Dantza Eskola. 3€.

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarriko aurrealdean, Markos Untzeta. Sarrera doan.

**Getxophoto. Igandeak hondartzatik.** Euskaraz. 11:30ean, irteera Punta Begoña Galerietatik. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 18 ASTEAZKENA

**Versadas. Poesia Kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), saioa Itziar Minguez idazlearen obrari buruz.

## EKAINAK 19 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Abentura ziragarriak", Perli eta Kokkolora. 5-10 urte. Doan.

**Literatura solasaldia.** 19:45ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Pedro Ugarteren "Un lugar mejor" eleberriari buruzko literatur solasaldia. Gaztelaniaz.

## EKAINAK 20 OSTIRALA

**Hitzaldia.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica: sobre el Concierto El Jardín de las Delicias". Hizlaria: Diego de Amigo (biolinista, konpositorea eta Barakaldoko eta Gas-teizko kontserbatorioetako irakaslea). [www.allantica.org](http://www.allantica.org)

**Kontzertua.** 19:45ean, Areetako Santa Ana parokian, Corpus Christiren kontzertua, Ars Canticum Ensemble taldearekin.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Manólogo" (gaztelaniaz), umorezko bakarrizketa Irantzu Varelarekin. Sarrerak agortuta.

**Getxophoto. Gaueko bisita.** Gaztelaniaz. 21:30ean, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 21 LARUNBATA

**Auzotarren eguna.** Etxetxun, 12:00etan, tarta-lehiaketa, tailerrak, mahai-ingurua eta ideia-lehiaketa. Antolatzailea: Portu Zaharreko auzotarren elkarte.

**Antzinako musikaren kontzertu antzeztua.** 12:00etan, Muxikebarrin, "El jardín de las delicias", All'Antica Musika taldearekin. 6€.

**Kontzertua.** 20:00etan, Muxikebarrin, Kalakan & Musikalia. 3€.

**Getxo Eszena Kalean. Dantza.** 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Atearen bestaldean", Hika Teatroarekin. Sarrera doan.

**Getxophoto. Larunbatak erdigunetik.** Euskaraz. 11:30ean, irteera Punto Infotik-Algortako azoka. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 22 IGANDEA

**Corpus Christi.** Etxetxun, 12:00etan, meza. Ondoren, Biotz Alai abesbatzak girotutako sardina-jana. 17:00etan bilbainadak eta 18:00etan Marching Band.

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarri aurrean, Mikel Urretagoiena Trio. Sarrera doan.

**Kontzertua.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Akordeoiak & Rock banda", Pentagrama Kultur Elkartearekin. 3€.

**Getxophoto. Igandeak hondartzatik.** Gaztelaniaz. 11:30ean, irteera Punta Begoña Galerietatik. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

- **Salgai.** Garaje handiko partze-la itxia. Fadura aurrean. Tel.: 645 49 29 11.

- **Lan bila nabil:** estetizista, saltzaile, zaintzaile eta abar, arratsaldeetan. Tituluduna. Tel.: 663 631 283.

# Jarduerak LGTBIQ+ Harrotasunaren Egunerako

Ekainaren 28an ospatzen den LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak hainbat ekitaldi antolatuko ditu. Horien helburuak dira herritarrak sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea eta LGTBIQ+ pertsonen aurre egin behar dieten diskriminazio- eta kalteberatasun-egoerei buruzko bizipen indibidual eta kolektiboak ikusaraztea; era berean, orain arte egindako aurrerape-nak aitortzea eta ospatzea ere nahi da.

Aurreikusitako jardueren artean, ekainaren 29an, igandean, 12:30ean, Algortako San Nikolas plazan, +D2 Impro izeneko antzeztua izango da, Zahira Montalvo Herrero eta Elba Ruiz Moralesek osatutako Kancaneo Teatro taldearen eskutik. Umore inklusibotik abiatuta, hausnarketarako gonbita izango da, begirada feminista eta sozialarekin.

**Jarduerak Gurarin**  
Bestalde, Aldarte LGTBIQ+ arreta eta ikasketa



zentroaren *LGTBIQ+fobia* erakusketa ikusi ahal izango da Gurari Emakumeen Etxean, datorren ekainaren 16tik 30era arte. Horren helburua izango da aipatutako kolektiboarekiko diskriminazioei eta gorroto-delituei buruz modu kritikoa aztertzea eta hausnartzea.

Erakusketak zortzi panel ditu, LGTBIQ+fobia desgerrazteko estrategiak sortzeko egiturazko kausak eta gakoak identifikatzen laguntzen duten informazioarekin. Bisitatzeke ordutegia Etxearena izango da eta gainera, gidatutako

bisitak egiteko aukera ere izango da, aurretiko izena ematen, 944660138 telefono zenbakiaren edo [gurarietxea@getxo.eus](mailto:gurarietxea@getxo.eus) helbidearen bidez.

Gurarin ere, *Hermafroditas del siglo XXI* liburua aurkeztuko du Mer Gómez egileak ekainaren 24an, 18:00etan. Lanak hamar intersex emakumezko gogoetak biltzen ditu, intersexualitateari buruzko iruditeria kultural berriak sortzeko helburuarekin.

**Bilbao Bizkaia Harro**  
Ostiral honetan, hilak 13, zenbait jarduera izango dira Algortako San Nikolas plazan, *Bilbao Bizkaia Harro* ekimenaren barruan. 18:30ean pregoiaren irakurketarekin hasiko dira eta ordu berean Harrokids aniztasunaren aldeko umeentzako tailerrak ere izango dira; 20:15ean *Sin trampa ni autotune* jaia, musikarekin eta antzerkiarekin, 21:00etan Nawirekin, eta 21:30etik aurrera DJ batek toki girotuko du.

## @GetxoUdala Tik Token dago jada

Udalak, bere kudeaketa herritarrengana hurbiltzeko eta publikoarekiko komunikazioa errazteko, @GetxoUdala profila ireki du Tik Tok plataforman. Tresna berri honek bat egiten du aspaldi irekitako beste sare sozialekin (Facebook, X, Instagram, YouTube eta BlueSky), baita WhatsApp eta Telegram kanalekin ere, zeinetatik udalerriko abisuak, alertak eta informazio garrantzitsuak jaso baitaitezke.



## Trinitarias ikastetxea aintzatetsi dute III. GJH Sarietan

Algortako Trinitarias ikastetxea saritu dute GJH Sarien hirugarren edizioan, Itunak kategorian, tokiko, estatuko eta nazioarteko sarean egindako lanagatik, 2030 Agenda bere hezkuntza jardueran txertatuta. BBK-k eta SER Euskadi Kateak antolatutako GJH sarien gala joan den asteartean, ekainaren 3an, ospatu zen, Bilbon, eta 2030 Agenda berrikuntzatik, kulturatik, inklusiotik, hezkuntzatik eta jasangarritasunetik bultzatzen duten zazpi ekimen eraldatzaile saritu ziren. Inigo Azkarate irakasleak, Trinitariasen Agenda horren koordinatzaileak, adierazi duenez, sari hori "albiste bikaina da bai ikastetxearentzat, bai udalarentzat, zentroak Getxon, Europan eta Iberoamerikan ehundutako sareei balioa ematen dielako".

## LABURRAK

**\*Biltzen.** *Atzeritartasunari buruzko Erregelamenduen erreforma* izeneko informazio-saioa izango da datorren ekainaren 20an Algortako Kultur Aretuan (Villamonte), 12:00etan hasita. Saioa Biltzen Gizareratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuak antolatu du, Udalaren laguntzarekin, beste entitate batzuen artean, zalantzak argitzeke. Doako izen-ematea: <https://labur.eus/uqa5p5qj>

**\*Koloretako argiak hainbat arrazoiengatik.** Hemokromatosiagatik, ekainaren 6an eta 7an, gorritz argiztatu ondoren, Areetako kaia eta igogailu publikoak ekainean hurrengo kolorez ere argiztatuko dira: hilaren 16an eta 17an, berdez, CD-KL5agatik (garunaren garapenari eragiten dion gaixotasun genetiko arraroa eta larria); hilaren 19an eta 20an, urdinez, Pertsona Errefuxiatuen aldeko Eguna ospatzeagatik; hilaren 21ean, berdez, ELA Al-boko Esklerosi Amiotrofiokoaren Munduko Eguna dela eta, eta, azkenik, 27an eta 28an, hainbat kolorez, LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunagatik.



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

## “Zorretan”, umore absurdoa eta tentsio-uneak nahasten dituen tragikomedia

Hika Teatroa konpainiak Donostia Antzerki Sariaren XX. edizioa irabazi zuen *Zorretan* izeneko muntaia taularatuko du ostiral honetan, hilak 13, Muxikebarrin. Emanaldia euskaraz izango da, 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Agurtzane Intxaurrek sortu eta zuzenduta, proposamen honek maitasuna, amatasuna eta zaintza aztertzen ditu. Dena gertatzen da bikote baten bizitza astintzen denean, emakumeak jakiten duenean ama beraiekin bizitzera joango dela. Hortik aurrera, egoera komiko, zentzugabe edo surrealista gertatuko dira. Eszenatokian Miren Gaztañaga, Jabi Barandiaran eta Iñake Irastorza egongo dira.

Lan hau dramaturgia berrien aldeko apustua da, non elementuak, pertsonaiak, ekintza, denbora eta espazioa desitxuratuta agertzen diren, etengabe ikuslearen pertzepzioarekin jolastuz. Kontakizun intimo, eder eta ausarta da, umore absurduz eta une batzuetan surrealista blaitua, arduari eta maitasunari modu arin bezain lotsagabean aurre egiten diena.



## Dantza Tío Teronen semeak-ekin

Larunbat honetan, ekainaren 14a, Areetako Geltokia plazan, Tío Teronen semeak konpainiaren *Haurreskolari* dantza muntaia izango da, euskal musika eta dantza tradizionalak umorearekin nahasten dituen taldea. Ikuskizuna arratsaldeko 18:30ean hasiko da eta Getxo Eszena Kalean kaleko arte eszenikoaren programaren parte da.



Koadrila xelebrea eskolara itzuli da. 40 minutuz gure bizitzako une ahaztezinak biziko dituzte melodia ezagunekin. Ikusitakoa desikasten saiatuko dira, ikusleen eskutik umoretik ikasteko prozesu bat eraikitzeko. “Jende guztia klasera, kanpaiak jo baitu!”, diote, herritarrak gonbidatuz.

## Getxoko Dantzaren Astea, asteburu honetan

Aurten ere, herriko akademia eta dantza eskoletako ikasleek euren artea partekatzea gonbidatuko gaituzte asteburu honetan, ekainaren 13, 14 eta 15ean, gorputzak hitz egiten duen eta musika gidari duen ikasturte amaierako festa batean.

Publikoak dantza garaikideko, klasikoko eta neoklasikoko koreografiekin gozatuko du, baita flamenkoaz eta dantza modernoaz ere. Mugimendua hizkuntza bihurtzen dutenen talentua, ahalegina eta grina ospatuko ditu dantzak.

Parte hartuko dutenak: Havana Dance, Allegro Ballet Studio, Porté Dantza Estudioa, Dantzarte, Carmen Vera Ballet Estudioa, Vivó La Danse Studio, Utopian eta Ana Lara Dantza Eskola.



## Markos Untzetaren errezitaldia

Markos Untzeta musikaria, herrialde anglofonoetan hezia, 20 urte baino gehiagoko esperientzia duena eta sei disko argitaratu dituena, Muxikebarrin kanpoaldean arituko da igandean, hilak 15, Kristalezko Kioskoaren programazioaren barruan. Amerikako musikarekin liluratuta, 13:30etik aurrera, pop-rock, country-blues eta blues doinuei leial zaien erreperitorioa erakutsiko du. Euskaraz abestuko du, oso ohikoa ez den proposamen berezi batean.



## “Oroimenaren laharrak, sustraiak eta fruituak”, dibulgazio antropologikoko saiakera nobelatua

Alazne Díez idazleak *Oroimenaren laharrak, sustraiak eta fruituak* liburua aurkeztu du Romo Kultur Etxean. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsoetan aurki daiteke. Egileak berak azaldu duenez, dibulgazio antropologikoko saiakera nobelatua da. Bertan, oro har, gizonen eta emakumeen kontakizunak erakusten dira, baina emakumeak elkarren artean konektatutako hainbat istoriotako protagonista gisa agertzen dira. Horieta batzuk benetako gertakarien parte dira, eta elkarrizketen bidez jasotzen dira. Testuak biografiak, historia soziala, tradizioak, kondairak eta leku eta gertaera zehatzei buruzko datu historikoak biltzen ditu.



## “Non daude Getxoko LGTBQ+ nagusiak?”, gure queer nagusien memoria historikoari buruzko lana

Julen Nafarrate kazetariak eta Ines Bermejo artistak *Non daude Getxoko LGTBQ+ nagusiak?* liburua argitaratu dute. Liburu ilustratua da, euskaraz idatzia, eta udalerriko queer adinekoen testigantzak jasotzen ditu. Abian Kultur Elkartearen aurkeztutako lan hau *Gu ere bagara* argazki erakusketaren jarraipena da. 2022an udalerriko kaleak okupatu zituen, eta Getxo Kulturak emandako sorkuntza bekak finantzatu zuen. Bi lanen helburua da “*LGTBI+ amama eta aititeei ikusgarritasuna ematea, haien sexualitatea, orientazioa eta identitatea nola bizi duten ezagutu nahi dugulako*”, diote.

## Romo FC, Euskadiko txapelduna alebin futboleko Eskolarteko Jokoetan

Romo F.C. 2013 taldea Euskadiko Eskolarteko Jokoetako txapeldun berria da, Alebin Errendimendua izeneko kategorian. Guztira berderatzi taldek parte hartu zuten txapelketan, probintzia bakoitzeko hiruk: Antiguoko KE, CD Vasconia eta CD Sanse, Gipuzkoatik; Deportivo Alaves, Ariznabarra eta Laudio, Arabatik; eta Athletic Club, Santutxu eta Romo FC, Bizkaitik. Ekainaren 1ean, igandean, Bilboko El Fangoko instalazioetan jokatu zen txapelketaren azken fasean, hutsean berdindu zuen Athletic Clubekin eta Santutxu 2 eta 0 hartu zuen mendean. Horrenbestez, Romo 2013 taldea lau puntura berdinduta geratu zen zuri-gorriekin, horiek Santutxu 3-0 mendean hartuta. Partida bakoitzaren amaieran jaurtitako penaltien txandak titulua irabazteko aukera eman zion talde getxotarrari, Athleticekin berdindu ondoren 3-2 nagusitu baitzen jaurtiketetan.



*"Lortutako txapelketa ospatzeko modukoa da Klubarentzat eta jokalarientzat, Romo FCko harrobian egiten den lan ona erakutsiz", adierazi dute Klubetik. Romo FC 1978an sortu zen, lagun talde batek hasie-*

*ra batean futbol eskola bat sortzea erabaki zuenean, auzoko gazteen artean kirol hori bultzatzeko. Geroago, Bizkaiko oinarrizko futbolaren erreferenteetako bat bihurtu zen.*

## Ipar martxaren irteera berria

Algortako Itxartu Taldeak ipar martxa (Nordic Walking) praktikatzeko irteera berri bat antolatu du udalerrian zehar. *"Makuluekin edo makulurik gabe (NW), Getxotik ibili"* lelopean, irteera, datorren larunbatean, hilak 14, izango da, Algortako Batzokitik, 10:00etan, eguraldiaren baldintzek uzten badute. Oraingo honetan, Santa Coloma ermitara joango da berriro martxa.

Aldez aurretik, 9:15etik aurrera, talde antolatzaileak bastoi nordikoak emango dizkie kirol jarduera horretan hasi nahi duten pertsoneri (bastoiak agortu arte). Eta 9:30ean, martxa nordikoan hasteko prestakuntza antolatuko dute.

Irteerara joan nahi dutenek mezu elektronikoa bidali behar dute [nw.itxartu@gmail.com](mailto:nw.itxartu@gmail.com) helbidera, ostirala baino lehen, hilak 13, parte hartuko dutela baieztatzeko.

## Getxo izango da Aefaten aldeko erronka solidarioaren azken etapa

Igande honetan, hilak 15, Gonzalo Pérez Zunzunegui runner bilbotarra iritsiko da Getxora, Abel de Frutos runner segoviarrarekin batera, Aefat elkartearen alde daraman erronka solidarioari amaiera emateko. Helburua da ataxia telangiectasia ikertzeko dirua biltzea eta gaitz hori pairatzen duten haur eta gazteei laguntzea. Gaixotasun genetikoa da, endekapenezkoa, eta ez dauka ez sendabiderik ez tratamendurik.

Erronka Done Jakue bidean 1.200 km baino gehiago korrikan egitea da, egunero batez beste 40-50 km eginez modu autosufizientean, lepoan motxila batekin bakarrik. Abel de Frutosek maiatzaren 31n amaitu zuen ibilbidearen lehen zatia, Obradoiroko plazan, 11 egunetan



jarraian Segoviatik 600 km korrika egin ondoren. Gonzalo Pérezek hartu zuen lekukoa, eta beste 700 km egingo ditu 15 etapatan, Santiagotik Getxoraino, Iparraldeko Bidetik, kontrako norabidean alegia. Igande honetan iritsiko da Algortara, 13:30ak aldera, azken kilometroetan Abel taldekidea lagun duela. Hori dela eta, goiz osoan zehar Tellagorri plazan elkartasun festa bat ospatuko da Aefaten alde eta bi korrikalarietako babesa emateko, herrian bizi den eta Gonzaloren laguna den Haizea Lopez eleberri beltzeko idazlearen laguntzarekin. 11:00etatik 15:00etara liburu-azoka solidario bat, Aefateko merchandising-aren salmenta, haurrentzako ipuin kontaketa eta aurpegiaren margotzea, musika, taillerak eta beste jarduerak batzuk izango dira, adin guztiarentzat.

## Bidea Belaz zeharkaldia Abrako Marítimoan porturatu da

Abrako Marítimo Elkartera (RC-MA-RSC) iritsi da aste honetan 10. ekitaldia bizi duen *El Camino a Vela* itsas-zeharkaldia, joan den ostegunean, ekainaren 5ean, Arroxelako portu enblematikotik abiatu eta gero, ohikoa denez. Esperientzia horrek bela nabigazioa eta Done Jakue bidearen esentzia uztartzen ditu, eta uztailean 1ean amaituko da, Obradoiroko plaza mitikoan, Padronetik oinez egingo duen azken etapa amaitu ondoren.

Aurten 25 belaontzi baino gehiago eta barruan daramatzaten 150 erromes inguru dira, antolatzaileek adierazi bezala, sinbolismoz, emozioz eta konpromisoz betetako



edizio honetan parte hartzen ari direnak. Zeharkaldia turismo urdin jasangarriaren erreferentzia bihurtu da dagoeneko, eta bela sustatzen du itsasoa eta kultura bizitzeko modu arduratsu eta aberasgarrietako bat bezala. Itsasoaz modu kontzientean gozatzea da helburua, Done Jakue Bidearen tradizioarekin bat eginez eta turismo eredu gizatiarra eta errespetuzkoagoa sustatuz.

Hemezortzi nabigazio-etapa dira (zortzi atsedean hartzeko), kostaldeko hainbat herri igarotzeko. Hondarribia, Getaria, Bermeo eta Getxotik igaro ondoren, Kantabriako eta Asturiasko kostaldera abiatu da, azkenean, Galiziara iristeko.